





Rolling Rolak

Pripublikar gisa (arte eta feminismoetatik abiatuz gizartea era kritiko batez begiratzea xede duen talde multidisziplinarra; soziologa bat, arkitekta bat eta bi artistaz osatua) jardunaldi feministetako ponentzietan **3. ardatzaren baitan (Emakumeok, gure identitateak eta gure gorputz instumituak)** parte hartu nahiko genuke esku artean dugun Rolling Rolak proiektua eta bere 3 atalak azalduz.

Rolling Rolak sortzen, birsortzen, asmatzen, imaginatzen edota eraldatzen ditugun rolen inguruko hausnarketa den, hots, genero eta rolen eraiketaren inguruko hausnarketa. Rolling Rolak hiru atalez osatzen da:
Argazklik argazki lehiaketa on-line, publiko zabalari irekia
Camara Crossing hausnarketan sakondu eta agente feminista ezberdinen begirada kritikoa islatu eta zabaltzeko eratuko diren argazki kateak (book crossing-a gogoan)
Genero eta Gorputz ekoizpenak jardunaldi teorikoak, arte errepresentazioatik abiatuz genero (des)eraiketaren inguruko hausnarketan sakontzeko (Udako Unibertsitateko Artea eta Kultura topaketetan)

Atal guztiek beren isla dute **Rolling Rolak** web-gunean.

Rolling Rolak-en manifestua:

Pripublikarrak kolektiboak eta Nontzeberri web guneak martxan jarritako Rolling Rolak ekimen kulturalak, ditugun, asmatzen ditugun eta ezarriak izan zaizkigun rolei buruzko gogoeta egin nahi du. Generoaz ari garela, bada, maskulino/femenino, ar/eme, gizon/emakume bikote tradizionaletatik harago joan nahi dugu. Genero kontuekin harremanik ez duten zein harremana duten argazkizaleak bildu nahi ditugu ekimen honetan.

Hala bada, hiru parte ditu Rolling Rolak: Argazklik on-line argazki lehiaketa, nahi duen guztiari zabalik; Kamera Crossing, kateatutako hainbat argazki serie, praktika feministei lotutako agente sozialak eta kulturalak batuz; eta Genero eta gorputz ekoizpenak mintegi teorikoa, praktika artistiko garaikideen bidez generoak aztertzea ahalbidetuko duena.

Alternatiba erreal edo ideal berriak ere agertu nahi ditugu; maskulinitate eta feminitate berriak (baita betikoak ere) edo erdiko aukerak (asmatuak, amestuak, nahiko genituzkeenak...). Gure generoarekin jolastu, gure rolekin, irauli, beste aukera batzuk asmatu. Era berean, maskulino/femenino dena aurkitu nahi da rolen inguruan dauden estereotipoak, mitoak, errealitateak edo gizon eta emakumeei dagozkien eskubideen arteko aldeak salatzen. Lehiaketak, bada, hainbat kulturatan eta zirkunstantzia zehatzetan generoaren subjektua osatzen duten botere harremanak jarri nahi ditu agerian.

Zer da gizon moduan jardutea? Zer da gizona izatea? Zer esan nahi du emakumea izatea? Nola jokatzeko dut eguneroko bizitzan? Nola jokatu nahiko nuke? Zenbat rolekin jarduten dut? Zenbat genero egon litezke? Zelan deitu genero horiei? Zenbatu daitezke? Nolakoak dira onartutako binomio honek hartzen dituen rol ezarriak?



ROLLING ROLAK
Simon Bolibar kalea 8-b,
48010 Bilbo
Tel.: 34 - 94 402 90 92
argazklik@argazklik.com
www.argazklik.com

Nolakoak dira baztertzen ditugunak? Erabiltzen dugu rolik beste batzuk aldarazteko? Zein litzateke generoaren edo generoen kontzepzio ideala? Zer da femeninoa? Eta maskulinoa? Zergatik izan behar dugu? Nola jokatzeko du matxote batek eta zergatik? Zein da binomio konsensuatuaren arteko harreman ideala? Eta errealak? Ba al da sexua ere eraikitze sozial bat? Bere erregulazioa baino lehenagoko generorik bada? Zeintzuk dira binomioa indartzeko gizarteak erabiltzen dituen ikonoak eta erreferenteak? Zelan azpimarratzen ditu binomioak botere harremanak? Nolakoak dira generoen arteko eta genero barruko botere harremanak? Badu generorik botereak? Badu zerikusirik espazioa pribatua edo publikoa izateak generoaren erregularizazioan? Ezberdina da erregularizazioa gizarte eta kulturen arabera? Zer esan nahi dugu pobrezia feminizazioaz hitz egiten dugunean?